

Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %1,2 gehitu ziren 2015eko laugarren hiruhilekoan

2015ean zehar, %1,3ko hazkunde metatua, aurreko urtearen aldean.

Eustaten datuen arabera, 2015eko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta nominalak %1,2 gehitu ziren, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Gasolindegia sartu gabe, salmentak %2,9 gehitu ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizea %0,1 nominala jaitsi da, urtaro-eraginak kenduta.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. IV/2015

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	1,2	-0,1	1,1	-0,5
Araba/Álava	-0,5	-1,9	1,6	-1,6
Bizkaia	2,1	1,4	0,8	0,6
Gipuzkoa	0,6	-1,6	1,3	-1,6
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	3,6	0,6	2,1	0,5
Elikagaietan espezializatuta	1,1	1,3	-1,4	0,6
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	5,0	2,0	7,2	1,1
Beste produktuak	2,4	-0,4	1,0	-1,2
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	4,3	0,0	0,0	-2,4
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	3,9	0,0	4,7	0,4
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	0,0	-2,7	0,7	-0,7
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-2,2	-1,6	-2,3	-2,5
Automoziorako erregaia	-15,2	-3,3	-2,1	-0,6
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	2,9	0,0	1,5	-0,4
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	0,6	0,6		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Elikagaien salmenta nominalak %3,6 gehitu ziren 2015eko laugarren hiruhilekoan; gainerako produktuetan %2,4 gehitu eta automobilgintzarako erregaian %15,2 jaitsi, beti ere 2014ko aldi beraren aldean.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %1,1 gehitu zen; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %5,0 gehitu. Gainerako produktuetan, pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %4,3 gehitu, etxeko ekipamenduan %3,9; kontsumoko

beste ondasunetan espezializatuan %0,0. Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %-2,2.

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean: Araban %0,5 jaitsi; Bizkaian %2,1 gehitu; Gipuzkoan %0,6 gehitu.


Prezioen eraginik gabe, txikizkako merkataritzaren salmentak %1,1 gehitu ziren 2015eko laugarren hiruhilekoan

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %1,5eko gehikuntza erreala izan zuten aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2015eko laugarren hiruhilekoan salmenta errealetan %0,5eko gehikuntza hirugarrenaren aldean, urtaro-eraginak kenduta.

Elikagaien txikizkakoan %2,1eko gehikuntza erreala; gainerako produktuetan %1,0koa, 2014ko hiruhileko beraren aldean; automobilgintzarako erregai-salmentetan %2,1eko jaitsiera.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%). Prezio finkoak



Elikagaien txikizkakoan, urte artean %-1,4 dugu espezializatuan; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %+7,2. Elikadura ez diren merkataritzan, gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %2,3ko jaitsiera. 2014ko laugarren hiruhilekoaren aldean, pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %0,0; Etxeko ekipamenduan %4,7ko gehikuntza; Kontsumoko beste ondasunetan %0,7.

Hiru lurraldeetan gehikuntzak salmentetan termino errealetan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean: Araban %1,6, Gipuzkoan %1,3, Bizkaian %0,8.

Euskal AE osoan txikizkako merkataritzako sektorean landunen kopurua %0,6 gehitu da 2015eko laugarren hiruhilekoan hirugarrenaren aldean.

2015eko balantzea

Urte osoan, txikizkako merkataritzaren salmentek %1,3ko gehikuntza nominal metatua. Gasolindegia sartu gabe, salmentetan %2,8ko gehikuntza, 2015eko datu metatuetan 2014koen aldean.

Termino errealetan, sektorea osorik %1,7 gehitu da; gasolindegirik gabe %1,8.

Urte osoan, tasa nominaletan: Araban %2,2, Bizkaian %1,3, Gipuzkoan %0,8. Prezio finkoetan: Araban %4,9, Gipuzkoan %2,0, Bizkaian %0,5.

Euskal AEn, 2015ean, aurreko urteko batez bestekoaren aldean, txikizkako merkataritzako enplegua %0,1 gehitu da.

2. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko aldakuntza-tasa

	UNEKO PREZIOAK			PREZIO FINKOAK		
	2015	2014	Δ%	2015	2014	Δ%
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera						
Euskal AE	98,4	97,1	1,3	89,8	88,2	1,7
Araba/Álava	102,6	100,3	2,2	96,1	91,6	4,9
Bizkaia	99,9	98,6	1,3	88,7	88,2	0,5
Gipuzkoa	94,0	93,3	0,8	88,5	86,7	2,0
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera						
Elikagaiak	99,9	97,6	2,4	92,4	91,1	1,5
Beste produktuak	97,8	94,7	3,2	88,2	86,4	2,1
Automoziorako erregaia	95,6	108,0	-11,5	87,1	86,6	0,5
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	98,7	95,9	2,8	90,0	88,4	1,8
ENPLEGU INDIZEA						
Euskal AE	90,8	90,7	0,1			

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMI)

Ohar metodologikoa: Laginketa markora lehen sartu gabeko zenbait enpresa ekarri dira eta indize batzuk birkalkulatu, hartara serie elemental batzuetan adierazgarritasuna hobetu delarik. Jarduera-mota mailan hainbat serie eta beraien agregazioak birzenbatetsi dira.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen (BMI) gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen (BMI) gaineko datu-bankua